

## **I. JURISDIKZIO-FUNTZIOA: GAURKO KONTZEPZIOA**

### **1. KONTZEPTUA**

Estatuko subiranotasunetik eratorritako ahalmena da; era ezeztazinean epaituz eta epaitutakoa betearaziz (kautela neurriekin babestuz), Zuzenbidea kasu konkretuan aplikatzeko ahalmena.

Ahalmen hau independenteak diren epaile eta magistratuz osatutako epaitegi eta auzitegiek eskusibotasunez egikaritzen dute.

- Epaitu eta epaitutakoa betearazi / funtzio bakarra
- Funtzio jurisdikzionalak zein eremutan jarduten du?
  - Pertsonen eskubideen -bereziki oinarrizko eskubide eta askatasunen- babesa
  - Zigorrek ezartzeko monopolioa
  - Erregelamendu-ahalmenaren eta administrazio-jardueraren legezkotasunaren kontrola
  - Legeen konstituzionaltasunaren kontrola
- Jurisdikzio funtzioa bakarra da
  - a) epaituz (adierazpen funtzioa)
  - b) epaitutakoa betearaziz (betearazpen funtzioa)
  - c) biak babestuz (kautela funtzioa)

### **2. JURISDIKZIO-FUNTZIOAREN GAINEKO TEORIAK**

#### **A. Teoria subjektiboa**

##### **a. Edukia**

- Zuzenbide Prozesalaren kontzepzio pribatuan oinarritzen da. Ordena zibila baino ez du kontuan hartzen.
- Estatuaren kontzepzio liberalean oinarritu (XIX. mendea):
  - Funtzio nagusiak hiritarren arteko ordena mantentzea eta euren interes pribatuak adostea
  - Justizia hiritarrei zuzendutako zerbitzu publikoa da.
  - Jurisdikzio funtzioa = herritarren eskubideak defenditzea/babestea hirugarrenek urratzean.

##### **b. Kritikak**

- Jurisdikzio-funtzioa ordena zibilera mugatu. Zigor jurisdikzio ordena ahazten da (*Ius puniendi*)
- Ahaztu egiten dute herritarrak ez direla bakarrik epaitegietara joaten euren eskubideak urratzen direnean, zalantza edo beldurra dagoenean ere jotzen dute funtzio jurisdikzionalera

- Prozesuan alderdiez gain (dtz-dtu) bestelakoak aritzen dira (lekukoak, abokatuak...). Teoria subjektiboek ez dute horien parte hartzea justifikatzen (ez direlako gatazkan dauden eskubide subjektiboen titularrak)
- Ez diote erreferentziarik egiten egintza prozesalei, ezta jardura prozesal osoari ere

**ONDORIOA:** Teoria subjektiboak ez dira baliozkoak Zuzenbide Prozesala azaltzeko

### B. Teoria objektiboa

#### a. Edukia

- Funtzio jurisdikzionala = Zuzenbide objektiboa kasu konkretuan aplikatzea.
- Estatuaren eginkizuna = Zuzenbidea betearaztea; beraz, hau borondatez betetzen ez denean estatuak jardun beharko du, Zuzenbide hori aplikatuz edo egikaritzuz.

#### b. Bilakaera

- LEHENENGO: zuzenbidearen kontzepzio inperatibo/autoritarioan oinarritu.
  - zuzenbidea betetzeko egin da eta bete egin behar da.
  - herritarren interesa/eskubideen babesa bigarren mailako kontua
- GERORA: Zuzenbideko Estatu Sozialean oinarritu. Zuzenbide publikoan (zigor zuzenbidean) aplikatu: gizartearen segurtasuna gailendu behar da norbanakoaren askatasunaren aurrean.

Laburbilduz: prozesua ez da herritarren tresna haien eskubide eta interesak bermatzeko. Prozesua Zuzenbidearen betepena ziurtatzeko Estatuaren tresna da.

### C. Teoria garantista edo bermatzailea

Egun indarrean dagoena. Epailea= ordenamendu juridikoak herritarrei aintzatetsitako eskubideen azken bermatzailea da  
Ordenamendu juridikoak teoria objektiboa onartzen du (EK 117.3 + BJLO 2.1)

EGUN: funtzio jurisdikzionala: epailea ordenamendu juridikoak herritarrei onartutako eskubide guztien bermatzailea dugu.

- Eremu zibilean: prozesuaren bidez herritarren eskubideak aztertu eta horien gainean erabaki
- Zigor eremuan: askatasunaren errespetua segurtasunaren aurrean. Ez dago zigorrik ezartzerik jurisdikzio-funtziotik eta prozesutik kanpo.

Norbanakoaren eskubideen bermea jurisdikzio-funtzioaren bidez egiten da, bi elementutan oinarrituz: legearen inperioan eta prozesuan.

DEF. = zuzenbide objektiboa kasu konkretura aplikatzea:

- epaileek burutzen dute era neutralean, interes gabezi objektiboa eta subjektiboarekin
- epaileek burutzen dute posizio kontrajarrien eskariei erantzunez (UZIA eta ERRESISTENTZIA)
- epaileek zuzenbide objektiboa kasu zehatzean ERA EZEZTAEZINEAN aplikatzen dute (*modo irrevocable, res iudicata*)

## II. UZIA ETA ERRESISTENTZIA KONTZEPTUAK

### 1. UZIA (pretensión)

#### A. Definizioa:

Funtzio jurisdikzionalaren jardueraren ikuspuntutik garrantzitsuena ez da gatazka egotea, baizik eta gatazka dela-eta jurisdikzio-organoen aurrean erreklamazio bat egitea, jurisdikzio organoei zuzendutako eskaera bat egitea = UZIA

Jurisdikzio-organo bati zuzendutako eskaera oinarritua, beste pertsona baten edo batzuen aurka eta edozein motatako ondasunei buruzkoa

#### B. Ezaugarriak:

- 1) Borondate adierazpena da
- 2) Eskaera oinarritua da. Egitateetan oinarritzen da.
- 3) Ez da izapide edo egintza prozesal bat. Uzia egintza prozesal baten bitartez aurkezten da, normalean demandaren bitartez.
- 4) Ez da eskubidea. Akzio-eskubidean oinarritzen da
- 5) Jarduteko eskatzen zaio jurisdikzio-organoari. Hiru jarduera edo babes-mota ezberdintzen dira: adierazpenezkoa (deklaratiboa), betearazpenezkoa (exekutiboa) eta kautelazkoa.
- 6) Beste pertsona baten aurka aurkezten da, subjektu pasiboaren aurka erreklamatzeko da. Subjektu hori zehatza edo zehazgarria izan behar da.  
(Subjektu pasiboak->ERRESISTENTZIA!!!)
- 7) Prozesuaren objektua osatzen du
  - epaileak ebatzi beharreko eskaera nagusia
  - beste prozesuetatik desberdindu
  - beste eskaera batzuk ere badaude (ez dira uzia): lekukoak etortzea...

8) Ondasun bati buruzko eskaera da. Ondasun desberdinak izan daitezke: auto bat, dirua, kontratu baten betearazpena...

2. ERRESISTENTZIA (resistencia)

A. Definizioa: Uziaren subjektu pasiboak jurisdikzio-organoari egindako eskaera, uziaren erantzun edo erreakzio moduan

B. Ezaugarriak:

- Uzirako esandako guztia aplikatu dezakegu.
- Berezitasuna: Erresistentzia oinarritzea ez da beharrezkoa. Baina, oinarrituz gero egitateekin egin beharko da.
- Aukerak: demandari erantzutea oinarriak emanez, prozesuaren jarraipenari buruzko arazoak aurkeztea, ez agertzea (auzi-ihesa), subjektu pasiboak uziaren egitateak uka ditzake kontrako zentzuan zerbait eskatuz baina inolako oinarririk eman gabe.
- Garrantzitsua dena edozein erresistentzia-mota egotea da; subjektu pasiboak uzia onartuko balu, gatazka desagertuko litzateke eta prozesua amaitu.

C. Funtzioa: Eztabaidaren eremua zehazten du. EZ du prozesuaren objektua zehazten, baina, uziaren eremua muga dezake:

- Uziaren objektua mugatu: demandatuak amore ematen duenean (*allanar*) zati batean.
- Eztabaidagaia eta frogak zehazten lagunduko du, demandatuak egitateen gaineko alegazioak eta frogak aurkez ditzakeelako.

3. UZIA ETA ERRESISTENTZIA. Ordena zibila vs zigor ordena

❖ Ordena jurisdikzional zibilean. Uzi eta erresistentzia kontzeptuek prozesuaren objektua zehazten dute.

Izan ere, prozesu zibilean eskubide subjektiboei buruzko gatazkek ebazten dira = Alderdiek beren eskubideez xedatzea dute, eta haiek dira prozesuaren objektua zehazten dutenak.

Epaiak ez du ahalmenik prozesuaren objektua aldatzeko, alderdien esku geratzen baita.

❖ Zigor ordena jurisdikzionalan. Zigortzeko ahalmena estatuari dagokio eksklusiboki = Zigor prozesuan alderdiek ezin dute prozesuaren objektuaz xedatu.

Prozesuaren objektua ZKk delitu edo falta moduan kalifikatzearen menpe dago.

Era berean, prozesua ofizioz hasiko da, nahiz eta ofendituek edo kaltetuek eskatu ez.

**III. ZUZENBIDAREN EGIKARITZE EZEZTAEZINA**

- Jurisdikzio organoen FUNTZIO BAKARRA ETA ESKLUSIBOA: funtzio jurisdikzionala = zuzenbide objektiboa kasu zehatzera aplikatzea
- Funtzio hori ERA EZEZTAEZINEAN burutzen dute.
- *Zuzenbidearen jarduera ezeztalezina* = posibleak diren auzialdiak agortu ondoren auzi judizialak amaitzen dira eta kasua behin betikoz amaituko da (ezin da berriz epaitu). Izaera ezeztalezinarekin *gauza epaituari* egiten diogu erreferentzia (BJLO 17.2 art.: Administrazio publikoek, agintari eta funtzionarioek, korporazioek eta entitate publiko eta pribatu guztiek, eta partikularrek, errespetatu eta, hala badagokio, bete egingo dituzte irmo bihurtutako edo legeen arabera exekutatu ahal diren epaiak eta gainerako ebazpen judizialak).
  - o *Res iudicata* (gauza epaitua) EK 161.1 a) eta 164.1 art.
  - o kontua ezin da berririo epaitegietara eraman,
  - o gizarte osoak errespetatu behar,
  - o oinarria: segurtasun juridikoaren printzipioa

**GOGOAN IZAN KONTZEPTUOK jurisdikzio-funtzioa definitzerakoan:**

- Jurisdikzio-funtzioa eta bere batasuna
- Jurisdikzio-funtzioaren gaineko teoriak
- Uzia eta erresistentzia
- Zuzenbidearen egikaritze ezeztalezina
- Interesgabezia objektiboa eta subjektiboa
- Botere betearazle eta botere judizialaren arteko ezberdintasunak